

# **BERGARAKO UDALAREN 2023ko MARTXOKO OHIKO OSOKO BILKURAN AZTERTZEKO MOZIO-PROPOSAMENA, ESPAINIAKO ESTATUAN MIGRATZAILEAK EZOHIKO BIDEZ ERREGULARIZATZEKO "FUNTSEZKOAK" IZENEKO LEGEGINTZAKO HERRI-EKIMENAREN PROPOSAMENAREKIN LOTUTA**

## **Zioen azalpena**

Azken estimazio berrienen arabera, Espainiako estatuan 500.000 migratzaile administrazio-egoera irregularrean bizi dira, eta horietatik heren bat adingabeak izango lirateke. 4/2000 Lege Organikoan (Atzerritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunei edo haien gizarteratzeari buruzkoa –Atzerritarren Legearen izenez ezagunagoa–) bizileku-baimena eskuratzeko jasotzen den sistema ez da nahikoa, mugatua da eta ez dator bat Espainiako estatuan bizi eta lan egiten duten migratzaileen gaur egungo errealitatearekin. Izan ere, alde batetik, bizileku-baimena lortzeko irizpideak oso murriztaileak dira, eta, bestetik, ezarritako administrazio-prozedura motela eta burokratikoa da, eta diskrezionalitate-tarte handia du baimenak emateko edo berritzeko orduan. Dinamika horren eraginez, zaurgarritasun- eta desinformazio-zurrunbiloa sortzen da eta horrek gizarte-bazterketa areagotzen du eta gizarte osoan eragiten du. Horrenbestez, ezinbestekotzat jotzen dugu pertsona horiek beren migrazio-egoera irregularren ondorioz dauden ikusezintasun-egoeratik atera ahal izatea bermatuko duten mekanismoak aurkitzea.

## **Ezohiko erregularizazioa justifikatzen duten arrazoiak**

Lehenik eta behin, gizaki bakoitzaren oinarrizko eskubideak errespetatzea. Irregularitasunak honako hauek baitakartza: lan-esplotaziorako kondena bat, erakundeen aurrean ikusezinak izatea eta lege-babesik ez izatea.

Bigarrenik, milioi erdi bat pertsona erakundeen radarretik eta zerbitzu publikoen plangintzatik kanpo daudenez, horrek gobernantza publikoan defizit bat dakar, urgentziaz zuzendu beharrekoa. Azken finean, gizarte osoarentzat ere ekarpen ekonomiko eta fiskal handi baten galera da. Alde batetik, irregularitasunaren eraginez, migratzaile askok ezin dute duintasunez lagundu gizartearen sostengurako funtsezkoak diren beraien gaitasunekin, ezkutuko ekonomiara bultzatuz. Erregularizazio batek, azkar eta eraginkortasunez, potentzial handi bat azaleratuko luke, hain zuzen ere haien zuzeneko zergen ahalmena eta enplegatuek eta enplegatzaileek Gizarte Segurantzaren sistemari egingo liezazkioketen ekarpenak. Migrazio-politikak ezin du jarraitu aldentuta egoten errealitate sozioekonomikotik eta errealitate hori egunez egun eraikitzen duten pertsona guztiengandik. Ezohiko erregularizazioak ahalbidetu egingo du Espainiako estatuan bizi diren migratzaile guzti-guztiak ikusaraztea. Abiapuntu gisa dituzten desberdintasunak konpentsatzea eta, aldi berean, lan-eskubideak berdintasun-baldintzetan bermatzea, abusu- eta esplotazio-egoerak murriztuz. Herrialde askotan ohiko mekanismoa da, eta baita Espainian ere. Ezohiko erregularizazio-mekanismo hau herrialde askok erabili dute. Europar Batasunean bakarrik esatearren, 1996tik 2008ra bitartean 43 erregularizazio egin dira 17 estatu kidetan. Berrienak Portugalen eta Italian egin dira, 2022an zehar, COVID-19aren pandemian bete-betean. Eta erantzun horren alde agertu zen Nazio Batuetako migratzaileen giza eskubideen aldeko Errelatore Berezia. Estatu espainiarrean, sei erregularizazio-prozesu izan dira 1978tik. Lau prozesu Alderdi Sozialistaren gobernupean eta bi Alderdi Popularraren gobernupean. Proposamen hau legeari lotuta dago, eta koherentea da nazioarteko konpromisoekiko. Proposamen honek bakarrik aldatzen du artikulua bakar batean 4/2000 Lege Organikoaren Lehenengo Xedapen Iragankorra. Xedapen iragankor horrek ez du izaera organikorik eta, beraz, legegintzako herri-ekimen

baten bidez aldatu daiteke. Jatorrizko xedapen iragankorrak Gobernuari agintzen zion ezohiko erregularizaziorako prozedura bat ezar zezala, eta horren eraginez 239/2000 Errege Dekretua egin zen.

Aldaketa-proposamenak jatorrizko idazkera mantentzen du; izaera iragankorrari eutsiz, Espainiako Gobernuari agintzen dio ezohiko erregularizazio-prozedura berri bat egin dezala, eta soil-soilik datak aldatzen ditu. Bukatzeko, komeni da honako hau azpimarratzea: tradizionalki ezohiko erregularizazioak arau-aldaketen ondorioz egin izan badira ere, ez dago inolako lege-araurik beste arrazoi batzuegatik erregularizatzea eragozten duenik. Gainera, proposamen hau oso lotuta dago Espainiako estatuak bere gain hartu dituen nazioarteko hainbat akordio eta ekimenekin. Horien artean dago Nazio Batuen Garapen Iraunkorrerako 2030 Agenda; zehazki 10. helburua, Migrazio Seguru, Ordenatu eta Erregularerako Munduko Ituna. Eta horrez gain, baita Migrazioari eta Asiloari buruzko Europako Ituna ere. Tresna horri zehazki dagokionez, azpimarratzekoa da Europarlamentuari zuzendutako galdera bati erantzunez Europar Batasuneko Barne Komisarioak adierazi zuena; izan ere, ukatu egin zuen itun horrek migratzaileen erregularizazioa eragozten duenik, honako hau esanez: erregularizazioa erantzun politiko egokia izan daitekeela eta EBk onartzen duela bere estatu kideek subiranotasuna dutela pertsona migratzaileen erregularizazioak beren irizpide eta eskumenen arabera erabakitzeko.

Horregatik guztiagatik, Bergarako Udaleko Osoko Bilkurak honako erabaki hauek hartu ditu:

**LEHENA.** - "RegularizaciónYa" pertsona migratzaileen mugimenduaren Legegintzako Herri Ekimenaren kanpainaren alde agertzea, Espainiako estatuan migratzaileen ezohiko erregularizazio bat burutu dadin.

**BIGARRENA.** - Lege-proposamenaren testu artikulatu honen alde agertzea: **ADMINISTRAZIO-EGOERA IRREGULARREAN DAUDEN ATZERRITARRENTZAKO EZOHICO ERREGULARIZAZIOA EZARTZEKO LEGEA** Artikulu bakarra: Atzerritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunei eta haien gizarteratzeari buruzko urtarilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoaren Lehenengo Xedapen Iragankorra aldatzea. Honako idazkera honekin: "Lehenengo Xedapen Iragankorra. Espainian dauden atzerritarrak erregularizatzea. Gobernuak, Errege Dekretu bidez, prozedura bat ezarriko du, 6 hilabeteko epean, Espainiako estatuan 2021eko azaroaren 1aren aurretik dauden atzerritarrak erregularizatzeko."

**HIRUGARRENA.** - Osoko Bilkuraren erabakia jakinaraztea "RegularizaciónYa" estatu-mailako mugimenduari.

**LAUGARRENA.** - Osoko Bilkuraren erabakia jakinaraztea Diputatuen Kongresuko Presidenteari.

**BOSGARRENA.** - Osoko Bilkuraren erabakia jakinaraztea Euskadiko Udalen Elkartera (EUDEL), hari eskatuz beste udaletara ere zabaldu dezala eta kanpainaren alde agertzeko gonbidatu ditzala.

Eta jasota gera dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan, idazki hau ematen dut, honako honen aginduz eta oniritziak xxxxx